



BARREN

TOKIKOM

# Turismoa natura ingurunean







# MINTXETA TABERNA

**Maiatzaren 1ean zabalduko dugu!**

9:00etatik aurrera bisitatu ahal izango gaituzu!

**GOSARIAK  
EGUNEKO PLATERA  
HANBURGESAK  
OGITARTEKOAK  
PINTXOAK**

Ez galdu aukera gure terrazako giro eta bista ederraz gozatzeko.

Covid-aren aurkako neurri guztiak bermatuko dira.



**943 747 447**

## BASIC EGUZKI KIT-A

2 Paneleko KIT-A  
Kontsumoa: 1Kw  
Erabilera: argiztapena,  
mugikor karga eta telebista.



**995 €  
895 €**



Técnicas del Agua y del Sol, S.L.

**ETOR ZAITEZ GURE EGUZKI KIT  
ESKAINZA EZAGUTZERA!**

Zerbitzuak

Salmenta  
Instalakuntza

Konponketa eta mantenua  
Aholkularitza eta dirulaguntzen kudeaketa

## CARAVANING KIT-A

Panel Malgudun KIT-A  
Potentzia: 100Kw  
Erabilera: argiztapena,  
mugikor karga eta telebista.



**365 €  
330 €**



San Ignazio kalea 3 behea, 20870 ELGOIBAR - 610 389 558 - [tecasol@tecasol.net](mailto:tecasol@tecasol.net)

# arnasa Gara EGUNEROKOAN ZER?



Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen amasguneetan chikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerririk dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

[www.arnasagara.eus](http://www.arnasagara.eus)

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra astero bideo bat eta elkarrizketa bat



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua





**ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ** Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

## Bizikleta lapurrei, esker onez

saldu zidan Bizi-Bike den-dako saltzaileak. Saldu zidan bai, ez bainuen nik soldata erdia jango zidan ibilgailua erosterik pentsatu. *“Ez zara damutuko; bizikleta hau asko erabiliko duzu, edonon gorde ahal da, eta gainera, semea zurekin eraman ahalko duzu eserlekutxoan jarrita.”* Hala bada, mendikoaren orde z tolesgarria hartu nuen.

Aste honetan entzun dudanez, Frantziar auto zaharraren truk bizikleta elektrikoa erosteko dirulaguntza emango ei dute. Frantsesek garbi daukate mugikortasun ereduak nola eraldatu. Hamabost minutuko hiria lortu nahi dute. Hiritarren beharrian guztiak, oinez edo bizikletaz, gehienez denbora horretan asebetzeko aukera emango duen hiria.

Mendaron ez dago bidegorririk batiere, ezta ikastolan bizikleta uzteko lekurik ere, baina halere, nik txirriindu erabiltzen dut semea eramateko, eguneko erosketak egiteko edota parkera joateko. Bost minutuko herria daukagu barren! Esan izan didate hain bizikleta txikian semea eta erosketa poltsak eramaten ikusteak grazia egiten duela. Niri aldiz, ez dit grazia askorik egiten autoan auzo batetik bestera poteatzera doazenak ikusteak. Akaso autoa lapurtu ezker, bizikleta erabiltzera animatuko lirakeela amets egiten dut.

Behintzat lapurrei esker ia egunero erabiltzen dut nik. Bizikletan eguna hasteak goiza goxatzen dit. Saltzaileari honako beste pisuzko arrazoia ematea ahaztu zitzaien: bizikletan ibiltzeak poza ematen du. Ez da gutxi garai hauetan. Proba egin eta esango didazu.

*“Saltzaileari honako beste pisuzko arrazoia ematea ahaztu zitzaien: bizikletan ibiltzeak poza ematen du. Ez da gutxi garai hauetan”*



**BARREN**

ARGITARATZAILEA:



**ELGOIBARKO IZARRA**  
Euskarazko Topagunea

**Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR**

**943 744 112**

**Publizitatea: 943 743 704**

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)**

**[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)**

**[www.barren.eus](http://www.barren.eus)**

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ MAIATZAREN 8RAKO EGITARAUA

Maiatzaren 8an milaka izango gara Euskal Herriko mendi gailurretan elkartuko garenok. Elgoibarren Morkaikorako egina dugu plana. Goizeko 9:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan herritik oinez igo nahi dugunok. 10:45ean, eta txistularien soinu alaiarekin, Aiastian elkartuko gara herritik doazenak eta autoz bertaratu nahi dutenak. Aiastiatik Morkaikora abiatuko gara, tontorrera heldu arte. Tontorrean, mendizaleei ongi-etorria eman ondoren, egun honetarako propio egindako bertso batzuk abestuko ditugu, esku-soinuaren, txistulari eta beste musikari batzuen laguntzaz. Bukatzeko, Judas Argarate taldeak bere alde akustikoa erakutsiko digu, hainbat kantu eskainiz. Talde-argazkia atara ondoren amaituko da ekitaldia. Gogoratu nahi dugu oso osasun egoera berezian aurkitzen garela eta, beraz, segurtasun neurriak zorrotz bete behar ditugula: musukoaren erabilera, distantzia mantentzea, pilaketak sahiestea... Bide batez, adierazi nahi dugu gaur, ostirala, hilak 30, hilabete bukaerako elkarretaratzea egingo dugula Kalegoen plazan. Hainbeste poz

eman digun Joseba Sarrionandia eta Agustin Azkarateren exiliotik itzulerak gogorazi behar digu Josu Lariz elgoibartarrak ezin duela halakorik egin oraindik. Josuk ere bere herrira bueltatzeko duen eskubidea aldarrikatu nahi dugu, eta horretan jardungo dugu lortu arte. Beraz, gonbitea zabalik gelditzen da.

**Sare Elgoibar**

### ▶ EGIA BILATZEAGATIK, HIL

Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak gure atsekabea eta doluminak adierazi nahi dizkiegu, batez ere, Barakaldoko Roberto Fraile euskal telebista kameralariari eta David Beriáin erreportari iruindarrari, Burkina Fasoko GKE bateko kide ziren irlandar batekin eta burkindar beste batekin batera erail baitituzte. Lanean zirela hil dira, luma eta kamera eskuetan zituztela, Afrikako herrialde honetako isileko ehizaren mundu iluna salatzen eta jakinarazten saiatzen ari ziren bitartean.

Atsekabe horrekin batera, gure gaitzespenik gogorrena adierazi nahi dugu, informatzeko asmoz informatzen diren

profesionalen mehatxuak, bahiketak eta, kasu honetan, hilketak direla eta.

Nahiz eta gure sentimendua eta min informatiboa itotzen gaituen COVID-19ren gaitzera bideratuta egon, kazetari hauen hilketak bezalako kalibre handiko albisteak iristen zaizkigunean, informatzeak dakarren arriskuaz hausnartzera garamatza. Baliteke hil izana talde jihadistekin estropezu egin dutelako eta/edo, seguruenera, isileko ehiza salatzen ari zirelako; bi arrazoi horien atzean arrazoi ekonomiko indartsuak daude, eta ziur aski gure lankideak hiltzeko espoletakada izan dira.

Errudunak hain lobby indartsuen ki-deak izatea edo ez, ez du murrizten, are agotu egiten du gure atsekabea eta informatzeko beldurra, baina, hala ere, gure ideia eragilea indartzen du, alegia, informaziorik gabe, salaketa-kazetaritzarik gabe, ez dagoela askatasunik.

In memoriam, David Beriain, Roberto Fraile, gogoan zaituztegu.

**Kazetarien Euskal Elkargoa eta Euskal Kazetarien Elkarte**



## Jose Maria San Martin Odria


"Soarte"

2021eko apirilaren 25ean hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Alicia Marcos Zabala

2021eko apirilaren 27an hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Premiazkoak ez diren ebakuntzak atzeratu eta gaixo larrienak Galdakaora eta Txagorritxura eramaten hasi dira Mendarotik

Azken asteotako kutsatzeek izugarri handitu dute ospitaleen gaineko presioa, eta Osakidetzak "premiazkoak" ez diren ebakuntzak atzeratu egingo zituela esan zuen astelehenan Gotzone Sagardui Osasun sailburuak. Osakidetzako sarean dauden ospitale guztietan atzeratuko dira ebakuntzak gutxienez bi astez, baita ESI Debabarreneko Mendaroko Ospitalean ere. Ebakuntzak atzeratuta, erreanimaziorako erabiltzen ziren gelak COVID-19arekin larri daudenentzat erabiliko dituzte. Gaixo kritikoek, berriz, Galdakaoko ospitalera eta Txagorritxura eramaten hasi dira, Zainketa Intentsiboko Unitatera. Orain arte, Donostiako ospitalera eramaten zituzten.



### Whatsapp bidezko komunikazio kanala zabaldu du Mendaroko Udalak

Whatsapp bidezko komunikazio kanala zabalduko du Mendaroko Udalak ekainaren lehen hamabostaldian herritarrek informatzeko. Zerbitzurako atxikitzeko, ezinbestekoa da herritarrek izen-abizenak eta telefono zenbakia ematea. Etxe guztietara zabalduko duten esku orria bete behar da horretarako, edo bestela, webgunean jarri duten fitxa betetzea. Telefono guzti horiekin difusio talde bat sortuko dute. Kanala alde bakarrekoa izango da, eta ez du balioko herritarren kezak eta iradokizunak jasotzeko.

### Hondakinak Garbiguneen atarian lagatzen dituztenei isuna jarriko die Mankomunitateak

Debabarreneko Mankomunitateak salatu dute azkenaldian zaborra Garbigune atarian lagatzen hasi dela jendea, ordutegiz kanpo. Are, Garbigunera eraman ezin diren hondakinak ere topatu dituzte atarian ar, amianto-hondakinak esate baterako. Horregatik, isunak jartzen hasiko direla ohartarazi dute. Hondakinak behar diren guneetatik kanpo lagatzea arau-hauste oso larritzat hartuta dago Mankomunitatearen ordenantzan, eta beraz, isunak 1.750 eta 45.000 euro artekoak izan daitezke. Isunak jartzen hasiko direla ohartarazteaz batera, garbiguneen ordutegia zein den ere gogorarazi dute Mankomunitateak: Aste-gunetan, goizez, 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara. Asteburuetan, berriz, goizez bakarrik zabaltzen dute, 9:00etatik 13:00ak bitartean.

### 'Patio inklusibo baterantz' hitzaldia antolatu du Mendaron Arno Guraso Elkarteak

Patioaren inguruko gogoeta parte-hartzailea sustatzeko ahaleginaren barruan beste herri batzuetako ereduak aurkezteari ekin dio Arno Guraso Elkarteak blogean ([arnogurasoelkartea.eus](http://arnogurasoelkartea.eus)). Gaiaren inguruan sakontzeko, solasaldi bat ere antolatu dute maiatzaren 6rako (San Agustin kultur gunean, 18:30ean hasita). Antzeko hausnarketa prozesuak martxan jarri dituzten beste hiru herritako ordezkariak gonbidatu dituzte: Zumaiako Herri Eskolako zuzendari Antxon Etxeberria, Azpeitiko ikastolako aholkulari Mikel Olaizola, Zumaiako patioko obrako exekuzio zuzendaria eta Zarauzko Balurdin guraso elkarteko kidea. Hiru gonbidatuekin batera Arno Guraso Elkarteko kide batek ere parte hartuko du: Javi Muñozek. Gogoeta prozesua abiatzeko batzordea eratua dago Mendaron, eta Udalean ordezkariak duten hiru alderdietako ordezkariak, Ikastolakoek, Ongizate Saileko eta Kulturako teknikariak, Arno Guraso Elkarteak eta patioaren ohiko erabiltzaile batek osatzen dute.

### Gurutze Santuaren gurtzeko meza etzi, hilaren 2an, ospatuko dute Elgoibarren

Usadioz maiatzaren 3an ospatu izan dute Gurutze Santua gurtzeko meza Azkue auzoko San Roke ermitan, baina aurten, San Bartolome parrokiaren egingo dute, igandean, maiatzaren 2an, 11:30ean hasita. "Aurten bizi dugun egoerak oroitze meza hori egunez eta tokiz aldatzera behartu gaitu", zabaldu dute parrokiatik

## 35.000 euroko laguntza Elhuyarri, gazteen artean zientziarekiko interesa sortzeko



Elgoibarko Udalak 35.000 euroko laguntza emango dio Elhuyarri 10 eta 16 urte arteko gazteen artean zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa sustatzeko, bai eta ekintzaitasuna eta sormena bultzatzeko ere, etorkizunean, lan merkatuan sartzeko "aukera handiagoa eta enplegarritasun handiagoa" izan dezaten. Horretarako, Elgoibarko enpresek behar duten ezagutzarekin eta lan arloko kualifikazioarekin prestatu behar dira gazteok eta horretarako, "bide zuzen eta egokiena". Elhuyarren *Bizilabe* programa dela uste dute udal arduradunek. *Bizilabe* bidez, urtean zehar hainbat ekintza antolatzea aurreikusten dute, besteak beste: *Izan ikertzaile asmatzaile* programa, Demo saiok, enpresetara bisitak, komunitateko ekintzak, Elgoibarko emakume zientzialarien (mentoreak) sarea... Elgoibarko Bizilabe proiektuko ikerketa zentroa Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoan egongo da, eta guneak partekatu egingo dituzte, proiektuak elkarrekin garatzeko.

### Hilaren 7an egingo dute Errigoraren banaketa gure bi herrietan

Errigoraren eskaera kopuruak gora egin du aurten, eta horregatik atzeratu egin behar izan dute produktuen banaketa. Elgoibarko eta Mendaroko Errigora taldeetatik jakinarazi dute maiatzaren 7an egingo dutela banaketa bi herrietan. Elgoibarren, Kultur Etxeko so-toan egingo dute banaketa, 16:30etik 20:30era. Norbaitek arazoren bat izango balu, 610 904 371 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute Elgoibarko antolatzaileek.

Mendaron, berriz, lagun Beti-koak-en ondoko lokalean egingo dute banaketa, 17:00etatik 20:00etara. Mendaroko kasuan ere telefono zenbaki bat jarri dute herritarren eskura antolatzaileek: 653 747 764

## Alokairurako dirulaguntza lerroa zabaldu du Elgoibarko Udalak gazteentzat

Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak jakitun, alokairurako dirulaguntza lerroa zabaldu du Elgoibarko Udalak gazteentzat eta dagoeneko zabalik dago eskaerak aurkezteko epea. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak honakoak dira: 18 eta 35 urte bitartean izatea, gutxienez azken bi urteetan Elgoibarren erroldatuta egotea, etxebizitzarik ez izatea jabetzan, alokairu kontzeptuan beste laguntzarik ez jasotzea eta urtean 18.000 euro gordin baino gutxiagoko eta 30.000 euro gordin baino gehiagoko diru-sarrerak izatea. Azken horren barruan bi kontu hauek ere hartu behar dira aintzat: bi kide edo gehiagoren kasuan, diru-sarrera guztien baturak ezin du urtean 58.000 euro gordin baino gehiagokoa izan, eta 18.000 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten pertsonen Eusko Jaurlaritzak ematen dituen *Gaztelagun* programara atxiki behar dira.

Dirulaguntza jasotzeko, baina, alokairuaren prezioak ezingo du 600 euro baino handiagoa izan eta ondorengoak ezingo dute laguntzarik jaso: babes ofizialeko etxebizitzak, azpierrementuak, gelen alokairua eta etxebizitza gisa erabiltzen diren lokalak. Dirulaguntzen zenbatekoa, berriz, diru-sarreraren arabera izango da: sarreraren batura 40.000 eurotik beherakoa bada, hi-



leko alokairu kuotaren %50ekoa izango da gehienez laguntza, 250 eurokoa. Sarreraren batura 40.000-58.000 eurokoa bada, laguntza hileroko kuotaren %30ekoa izango da, 150 eurokoa.

Dirulaguntzak jasotzeko eskaera ekainaren 4a aurretik egin behar da [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunearen bidez. Horretarako beharrezkoa da ziurtagiri elektronikoa izatea [B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela...]. Ziurtagiri hori Herritarren Arreta Zerbitzuan eska daiteke.



## 'Elgoibartik Martera' egitasmoaren barruan, Alcorta enpresara bisita egin dute Herri Eskolako seigarren mailako ikasleek

Hezkuntza Sailak Magnet-Erakarri proiektu pilotua ipini du martxan Euskal Autonomia Erkidegoko lau ikastetxetan, eta horietako bat da Elgoibarko Herri Eskola. Hiru urteko iraupena dauka Magnet-Erakarri egitasmoak, eta berari esker, hainbat helburu lortzeko asmoa dauka Elgoibarko Herri Eskolak: Metodologia berritatzaila oinarria duen Hezkuntza Proiektua orokortzea eta sistematizatzea, kalitatean eta ekitatean oinarritutako proiektua lantzea, ikastetxearen identitatea sendotzea inguruan erreferentziazko proiektu bilakatzuz, eta eskolak bere inguru sozioekonomiko eta kulturalarekin duen lotura naturala sendotzea.

Aipaturiko helburu horiek betetzeko asmoarekin landu dute LHko 6. mailako ikasleek *Elgoibartik Martera* izeneko egitasmoa, NASA espazio agentziak Martera bidali duen Perseverance izeneko Rober esplorazio espazialeko ibilgailuan oinarrituta. Herri Eskolatik zehaztu dutenez, Magnet-Erakarri proiektuan jasota dauden hiru helburu landu dituzte. Ikasleei herriko garapen ekonomikoan oinarri diren enpresak ezagutaraztea eta gerturatzea da helburuetako bat, eta Alcorta Forging Group enpresako forja ezagutzeko bisita egin zuten joan den barikuan. Era berean, nesken artean bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzea da beste helburuetako bat, eta Alcortara eginiko bisitaren barruan, bertan lanean diharduten bi emakume ingeniariak euren lan esperientziaren berri eman zieten eskola umeei.

Bisitari hasiera emateko, baina, ikasgelan landu duten proiektua ezagutarazteko aurkezpena egin zuten ikasleek Alcorta enpresako arduradun nagusien eta beharginen aurrean, ikasgelan landutakoa zuzeneko aurkezpenen bidez ezagutzera ematea baita egitasmoaren beste helburuetako bat. Proiektua aurkezteaz gainera, sortu dituzten rober ibilgailuak ere erakutsi zizkieten eta proba txiki bat ere egin zuten beraiekin. Aurkezpena amaitutakoan, taldetan banatu eta enpresa barrua ezagutu zuten ikasleek, Alcortan egiten dituzten lan desberdinak ezagutzeko.



### Mintxetako igerilekuen ondoko berdegunea urte osoan zabaltzea proposatu du EH Bilduk


Bainu-denboraldiak irauten duen hiru hilabeteetan egoten da erabilgarri Mintxetako igerilekuen inguruan dagoen berdegunea, baina herrian halako beharra dagoelakoan eta behar hori pandemia egoeran "are nabariagoa" delakoan inguru hori urte osoan zabaltzea proposatu du EH Bilduk. "Herriko zenbait gune guztiz masifikatuta daude, eta gainera erabilera bateragaitzak gertatzen dira askotan; haurren jolasak, pertsona helduen pasealdiak", zabaldu dute. EH Bildun uste dute herritarrentzat arnagune bat izan daitekeela eta haur eta helduen osasunean eragin positiboa izango duela. Udalean proiektu bat aurkeztu dutela ere zabaldu dute. Bi kontu jaso dituzte proiektuan: batetik, aire libreko igerilekuak babesteko itxiturak jartzea, eta bestetik, bi komun publiko jartzea, bata, Mintxetako kanpoaldean, eta bestea, berdegunean.

### Gizarte zerbitzuen arloko elkarteentzako dirulaguntzak banatuko ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 12.000 euro bideratuko ditu partaidetza eta gizarte boluntariora sustatzeko proiektuetara edota gizarte bazterketa, babes gabezia, mendekotasuna edo gizarte isolamendu arriskuan edo egoeran dauden gizarte taldeen prebentziorako, sustapenerako edo gizarteratzeko jardura eta proiektuetara. Gizarte Zerbitzuen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeek eta elkarteek eskatu ahal izango dute dirulaguntza hori, beti ere, proposatzen dituzten proiektuetako bat Elgoibarren garatzen badute. Dirulaguntza eskabideak Udalaren webguneko zerbitzu telematikoen bitartez aurkeztu beharko dituzte. Horretarako, 30 laneguneko epea izango dute elkarte edo erakunde interesdunek, ekainaren 4a arte. Informazio gehiagorako: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus).



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



### **S**igma auzoan irisgarritasun arazo handiak daude.:

"Sigma auzoa eskaileraz beteta dago, eta adineko asko etxetik irten ezinda geratu dira. Paseatzera irten nahi duenak eskailera pila bat pasatu behar ditu. Anbulantzia etortzen denean ere, zailtasun handiak dituzte portal askotara iristeko. Eta, horrez gain, espaloiak hondatuta daude". Hirigintza Sailetik esan dutenez, Sigma auzoak hainbat zailtasun dauzka irisgarritasuna bermatzeko, eta legediak ezarritako baldintzak betetzeko: "Horregatik idatzi dugu, auzokideekin batera, auzoaren birgaitze proiektua, eta bertan jaso ditugu auzoaren irisgarritasuna hobetzeko lanak, modu integral batean. Espaloi horren zoladuraren konponketa, bestalde, aurtengo aurrekontuetan dago jasota".



### **M**intxetako pasealekuan hesia hondatuta dago:

"Denbora asko darama hesiak hondatuta, eta oinezkoren batek mina hartzeko arriskua dago". Hirigintza Saileko arduradunak esan du konponduko dutela.



### **O**lasoko hilerriak irisgarritasun arazoak ditu:

"Olasoko hilerriko sarrerak aldapa eta koska handiak ditu, eta adineko pertsonen edo gurpildun aukian daudenek zailtasun handiak dituzte bertara iristeko". Hirigintza Saileko arduradunak esan du jakitun direla Olasoko hilerriak dituen irisgarritasun arazoez, baina hilerriaren kokapena aldatzeko aukera askorik ez dagoela gaineratu du. Hala ere, esan du, bertara iristeko hainbat igogailu jarri dituztela azken urteotan; azkena, josteko makinako pasabidea, 2016an.



### **E**rrotaberri parkean pibote arriskutsu bat dago:

"Errotaberri parkean, garajeetarako bidean, pibote bat zeharo ugetuta dago, eta norbaitek min hartzeko arriskua dago. Eskertuko genuke hori aldatzea, mesedez".





Matteo Cantu Abatetxe landetxeko jabea ezkerretara, eta eskuinean, Maribel Bastida, Atxurikoa.

# Turismoa, bertatik bertara

**Bilatzen duguna arnasa hartzea eta lasaitasuna badira, ez daukagu zertan apartera joan. Balio natural handiko ingurunean bizi gara, leku estrategikoan, eta horixe da Elgoibarko Abatetxe landetxeak eta Mendaroko Atxurik eskaintzen dutena: sosegua, arnasa eta mimoa, aparteko ingurune batean. Uztailean 27 urte beteko dira Atxurin landetxea zabaldu zutenetik, eta 2019an zabaldu zuten Abatetxe. Geoztik, makina bat bidaiarik hartu dute haietan ostatu, baina pandemiaren eragina igarri dute bietan.**

- AINHOA ANDONEGI / AINARA ARGOITIA / ASIER ORBEA -

## ATXURI LANDETXEAK

Paradisua ez du urruti behar. Udaberri beteko eguraldia egiten du, eta ezin dotoreago ageri da Kilimon bailara hemen goitik. Mendaroko gorengo baserria da Atxuri, baina etxeko atarian hamar pauso aurrera egin eta Azkoitiko lurretan gaude. Sekulako ikusmira dago bertatik. Gorla, Oiz, Arno, Otarre, Agiro, eta Ondain mendi gainak bista-bistan daude, eta itsasoa bera ere bai. "Gau oskarbietan Lekeitioko itsasargia ere ikusten da hemendik. Hala esaten ziguten hemengo aiton-amonek, Lekeitiokoa zela", dio Maribel Bastidak, landetxearen ugazabak. Gertuagoan, Debatik Zumaiara arteko itsas-bazterrak ere ikus daitezke Atxuritik. "Horretxek dauka orain estimazio handia: Flyschak. Horixe ikustera etortzen da jendea amorratuta kanpotik. *Game of Thrones* grabatu zutenetik, sekulako indarra hartu du Zumaiak. Donostiako Kontxa eta Gaztelugatxeko Joan Deuna dira besteak; denek ekartzen dute horiek ikusi beharra", aipatu du. Euskal Kostaldeko Geoparkeko harribitxia da Flyscha; geologia, Geoparkeko paisaiaren egiazko protagonista. Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen dute Geoparkea, eta Mendarok ere hor behar lukeela sinetsita dago Maribel. "Deba hor bertan dau-

kagu eta balio natural handiko lekuan bizi gara. Mendaro Geoparkean sartuta balego, turismo gida guztietan egongo ginateke. Geoparkean egoteak bizitasun handia ematen dio turismoari. Alkateari ere esan nion".

Turistek kostalderako tiradizo handia dutela dio, eta itsas bazterrak betetzen direnean hasten dela eurenean telefonoa joka. Aspaldian, baina, ez du askorik jo. "Iazko udazkenetik ez dugu inor izan hemen. Aste Santurako izan genituen erreserba batzuk, baina bertan behera laga zituzten azkeneko unean". Barakaldoko familia bat zuten hartzekoa lehenengo, baina etxekoen artean positibo kasu bat agertu eta bi egunen faltan deitu zieten ezin izango zutela etorri esanez. Egun hartan bertan jaso zuten bigarren erreserba eskaera lezotik, baina haiei ere suertatu zitzairen zerbait azken unean, eta jai!. "Pandemiak sekulako kaltea egin digu guri. Geneuzkan erreserbak jausten hasi zitzaizkigun lehenengo, eta ondoren, herrira lotu gintuzten. Eta, gure herritik zein etorriko da ba hona?". Mendaro izanda ere, autoz Azkaratetik igo behar da Atxuriraino, Madariagan gora eginda (Madarixa gure berbetan), Otarreruntz. Larraskanda baserrira orduko dago bidegurutzeara, ez-



kerrera. Eta hantxe, Atxuri izeneko tontor harritsuaren (580m) atzeko aldera dago baserria, Izarraitz aldera begira, landetxetik bertatik ikusten ez den arren tontorra. Igarobide handiko lekua da mendizaleentzat, bai eta bizikleta zaleentzat ere, ia etxe ataritik bertatik pasatzen delako BTT ibilbidea ere. "Erdi hondatuta dago letreroa, baina topatzen dute bizikleta zaleek bidea", dio Mari-belek, eta aipatzeaz batera han agertu da behetik gora txirindulari bat, sasoiko, Azkoitiko Ormaetxea txirindulari kirol elkarteko mailota jantzita. Erromarea zabaldu dio Maribelek. "Bere hanken indarrez dator, gainera!", dio, mendian gero eta bizikleta elektriko



gehiago ikusten direla adieraziz. Eskertu du txirindulariak. Luis Berstain azkoitiarra da, eta Madarixatik bueltan dator.

Pandemia hasi zenetik, mendiak estimazio handia hartu duela dio. "Lehen, Kontxa ikustera edo Bilboko Guggenheim ikustera joaten ziren denak, nik oraindik ikusi ez dudana, baina orain ikusi egin behar da Xoxotera zenbat jende igotzen den! [Pare bat orduan egin daiteke joan-etorria Atxuritik]. Berdin Urbiara ere! Jende asko dabil mendian, kaleko jendetzatik ihesi". Atxurira etortzen zaizkien bisitariak ere horixe estimatzen dute gehien, mendia eta mendiko lasaitasuna.

Bisitarien perfilez galdetuta horixe nabarmenduko luke. Hondartza gosez datozenak baino gehiago direla Euskal Herriko leku entzutetsuenak ikusi asmoz datozenak, hara-hona ibili zaleak. "Kataluniarrak izaten dira gehienak, baina izan ditugu urutiagokoak ere". Iazko udan Argentinako bi familia izan zituzten, euren artean ezagutzen ez zirenak, eta Errusiako, Italiako... bisitariak ere izan dituzte. "Errusiako zazpi lagunak, gainera, urteetan etorri dira. Patxarrarekin afaltzen zuten haiek. Leku hotzekoak izan haiek!". Turistek ez ezik, lanera etorritakoak ere topatzen dute Atxuri. "Orain bi urte, Zubietako erraustegia eraikitzen ibilitako langileak izan genituen bi hilabetez, eta Maltzaga-Gasteiz autobideko obretan ibili zirenekin bi urte osoz bete genuen etxea", zehaztu du.

Landetxean 10-12 lagunentzako lekua dute, baina hutsik dute aspaldian. "Egoera ez da ona. Gu hemen gaude, lasai-lasai, baina jendea falta, dirua". Eusko Jaurlaritzatik eta Mendaroko Udaletik jaso dute laguntza eta estimatu dute, baina turistak iritsi zain daude. Udara begira, mugimendua igarrita daudela dio horren inguruan. "Besteetan baino azkarrago hasi dira deika, baina deitzeaz batera hasten dira galdezka bertan behera laga behar izanez gero, dirua itzuliko ote diegun. Irteteko gogoz dago jendea, baina beldurra ere badago, eta normala da. Inguru guztia gorri daukagu eta udan zer izango dugun jakin ez!", bota du. Alokatzekotan etxe osoa alokatu beharra dute; ezin dituzte familia berekoak ez direnak hartu, eta hori traba zaie, jakina. "Sei laguneko taldea etorrita ere, hamabirena ordaindu behar dute. Dekontutxo bat egiten diegu, baina hori dago. Egia esan, nahi ere hori dute gehienek: etxe osoa alokatzea, arriskuak gutxitzeko, baina arazoa da!".

Atxuri baserria eta landetxea eraikin bera dira, baina aparteko sarrera batetik sartzen dira landetxera datozenak. "Nahi badute harremanetzen gara, eta bestela, ez. Euren aukeran dago hori, baina gau ederrak pasatu ditugu udaro atari honetan bisitarienkin. Mahaia atera, bakoitzak zeozertxo gehitu mahaira eta solasaldi ederrak izan ditugu hemen. Eta bisitarienkin izandako harremanaz ari dela, Kataluniatik ezkontzera Getariara etorri zen bikote batekin gogoratu da. Etorri zitzaigun familia oso bat, 14 lagun, eta etortzeaz batera esan ziguten biharamunean ezkontzekoak zirela bi, Getarian. 2 urteko semea zuten, Unai, eta Euskal Herrian egonak ziren aurrez. Getariarekin maiteminduta zeuden. Hemen igaro zuten gau bat, eta biharamunean hemen bertan jantzi ziren andregai eta gizongaia Getariara joateko ezkontzera. Edozenbat





argazki atera genituen hemen, atarian, elkarrekin. Zarauzko Izetan bazkaldu zuten gero”, gogoratu du.

### ETXEAREN EZAUGARRIAK

Atxuri landetxeak euskal baserri klasiko baten itxura mantendu du, kanpo nahiz barru. Bi solairutakoa da landetxea. Sartu eta bat, egongela/jangela handi bat dauka, eta ondoan, jolasleku zabala. Inguru guztian sutarako egurra dute, eta hormetan, erretratu zaharrak eta baserriko erremintak, apaingarritzat. Mendaroko Kortaberri baserrikoen ospakizunetakoak dira erretratu gehienak. “Gure ama hangotzea zen. Mendarokoa naiz ni, eta harro nago gainera. Gure gazteek xe-xe hizkera dute, eta Azkoitin egiten dute bizimodua, baina haiei ere erakutsia diet Mendaro dela hau”, dio Maribelek. Beheko suak, baserri-giroko altzariak, Azkoitin hustu zuten etxe batetik ekarritako piano luzeak eta gainerako apaingarriak ukitu berezia ematen diote etxeari. Detailerik txikiena ere zaindu dute. Esteban Elorza osaba zuenaren trontza ere hantxe dauka, luze, ugerrik gabe, pianoaren gaineko aldean eskegita. Aizkoran eta trontzan aritu zen bere garaian Esteban Elorza eta birritan jantzi zuen Euskal Herriko txapela trontzan, Agustin Larrañaga herrikidea lagun zuela. Iazko apirilean hil zen, 82 urte zituela, eta ondorengoek Mendaroko Udalarari eman zizkioten dohaintzan haren erremintak eta garaikurrak. “Orain, hemen daude horiek denak. Iñaki [Arregi] alkateak eman zizkigun,

udaletxean baino hobeto egongo zirelakoan hemen, eta harro erakusten ditugu guk”.

Bigarren solairuan, sukaldea, egongelak eta komunak daude. Egongela besteko handia da sukaldea ere. “Guk ez dugu jatekorik ematen hemen. Gosaria prestatzeko gogorik ez dutenei, gosaltzen ematen diegu hori bai. Maltzaga-Gasteiz autobideko lanetan jardun ziren langileei ere afaltzen eman genien bi urtez, lanetik berandu iristen zirelako, eta beste behin zeliakia zuen bat ere izan genuen eta hari ere prestatzen genizkion otorduak, berak eskatuta, baina bestela, ez dugu guk jaten ematen”. Korridore luze baten alde bitara daude logelak. Sei dira guztiak, denak bikoitzak. Inguruko mendien izenak dituzte bostek: Arno, Agiro, Otarre, Ondain eta Izarraitz. Eta Mendaroren omenez, Kilimon jarri diote seigarrenari. Ondain, Kilimon eta Izarraitz logelak bainugela eta guztikoak dira, eta haiek dira beti saltzen lehenengoak. Gainerakoentzat beste bi bainugela dituzte aparte, partekatuzko.

Kanpoan, parrila ere badu landetxeak. “Ikusi egin behar da zenbat gustatzen zaien hori bisitariei!”. Jolasleku txiki bat ere badago, eta baita mendiak eskaintzen dituen aukera guztiak ere eskura. Gaur, Kukua kantuan ari da etengabe Ondaindik. *Maiatzean kuku eta garagarrilean mutu* dio esaera zaharrak. Ea ba kukua mututzen denerako bisitariak hasten diren kukuka.

## Atxuri, datutan

- ◆ 12 lagunentzako ostatua emateko aukera.
- ◆ Sei logela bikoitz. Horietako hiru bainugeladunak. Beste hirurentzat bi bainugela daude aparte.
- ◆ Ohe osagarriak jarri daitezke
- ◆ Parrila eta jolaslekua. Interneterako sarrera ere badago.
- ◆ Harremanetarako: Nekaturren dago, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko landetxeen erakundean. Harreman zuzenerako: 699 760 154 (Maribel Bastida Elorza) / [atxuribastida@gmail.com](mailto:atxuribastida@gmail.com)





## ABATETXE LANDETXEA



**G**uatemalan eta Italian bizitzen egon ondoren, 2013an hartu zuen Matteo Cantuk (Italia, 1977) Elgoibarrerako bidea, bere familiarekin. Italian bizi ziren orduan, Milan inguruan, baina lanik gabe geratu zen. Emaztea elgoibartarra du, eta horregatik erabaki zuten, "etxera" itzultzea. Abuztuan iritsi ziren Elgoibarrera, eta Matteo berehala konturatu zen ez zuela herriguneari bizi nahi. Mendizale amorratua da, eta izugarri gustatzen zaio natura, eta Elgoibar "zulo" bat iruditzen zitzaien. "Herriatik bi edo hiru kilometrora irtenda, beste Elgoibar bat dago". Elgoibar inguruko landa eremua gustatzen zitzaien, eta baserri baten bila hasi ziren. Abatetxe baserria izan zen ikusi zuten lehendabiziko etxea, eta ikustiaz bat maitemindu zen Matteo: "Paraje ederra iruditu zitzaidan, eguzkitsua da, bista zoragarriak ditugu eta hemengo lasaitasuna izugarria da. Niretzat toki hau paradisua da". Txoriak, iturriko ura eta haizea baino ez dira entzuten Abatetxen. Txakurrek ere ez dute apenas zaunkarik egiten, eta bizilagunekin jolasteko irrikaz egoten dira, muturrearekin mi-moak eskatuz.

Urruzuno bailaran dago Abatetxe, Azkarate gaineko bide gurutzeari ezkerrean hartu eta bi kilometrora. Baserria zaharkituta zegoen barrutik, baina teilatua eta fatxada berrituta zeuzkan, eta aukera asko zituela iruditu zitzaien Matteori. Hala ere, bisitatu zizuten beste zenbait etxe, baina Abatetxerekin geratu ziren: "La-

gunek esaten ziguten nola joan gintezkeen horren urrutira bizitzera, baina niretzako hau gertu dago. Umeak ikastolara eramateko 12 minutu bakarrik behar ditut. Hori ez da ezer! Milanen ordu erdi behar da gutxienez edozein lekutara iristeko".

Baserria prestatzen hasi ziren, eta 2014ko apirilera joan ziren hara bizitzera: "Hilabete gutxi batzuk egin genituen herrian, ito egiten nintzen eta berehala joan ginen mendi aldera". 400 metro koadroko planta dauka baserriak, bi solairutan banatuta. Baserriaren hegal batean eraiki zuten beraien etxebizitza, eta gainerakoarekin zer egin pentsatzen hasi ziren. Eta orduan bururatu zitzairen beraien paradisua gainerako jendearekin konpartitzea aukera polita izan zitekeela: "Guk gozatzen genuen moduan, beste jende bati gozamen hori eskaini nahi genion".

### LANDETXEA

Landetxe bat sortzea pentsatu zuten. Merkatuaren ikerketa egin zuten, eta bideragarritasun ekonomikoa aztertu ondoren, proiektuari ekin zioten. Landetxe intimoa sortu nahi zuten, deskonexiorako eta lasaitasunerako gune bat, bezeroak lasai eta gustora egongo ziren landetxea. Aukerak aztertu eta ukuilua zegoen gunean eraiki zuten landetxea: "Obreak egiten hasi ginen pixkanaka-pixkanaka. Bost bat urtez egon ginen obretan". Igerilekua egitea ere pentsatu zuten hasieran, baina azkenean ideia baztertu egin



zuten, Euskal Herrian uda "motza" delako eta igerilekuak mantentze lan "handiegia" eskatzen zuelako.

2019an zabaldu zuten Abatetxe landetxea. Beheko solairua bakarrik zabaldu zuten hasieran, hau da, bi logela eta sukaldea, bezeroek partekatuzko. Urtebete geroago zabaldu zuten goiko solairua, beste bi logela eta egongela batekin. Guztira, beraz, lau logela dituzte, zein baino zein dotoreagoa. Logela guztiek euren komuna dute, eta familian edo bikotearekin egoteko modukoak dira. Argitsuak, zabalak eta erosoak. "Logela bakoitzak landare baten izena dauka, eta bezeroak etortzen direnean, landare hori jartzen diegu ohe gainean". Detaile guztiak zaintzen dituzte Abatetxen.

Bezeroak "etxean" bezala hartzen dituzte Abatetxen. Sukaldea dute konpartitzeko, baina momentu batzuetan motz geratu daitezkeela uste du Matteok, eta horregatik, gosaria eta afaria ere eskaintzen dute. Eta jatekoa ere mimoz zaintzen dute Abatetxen. Sasoian sasoiakoa jaten dute, eta ahal dela, dena ekologikoa: "Erabiltzen ditugun produktuak ekologikoak dira gehienak. Gure baratzeak ematen dizkigun barazkiak erabiltzen ditugu, gure oiloen arrautzak, eta baita Altzola Beraseta eta Txillarreko produktuak ere bai". Matteo italiarra izanik, menuan pizza italiarra ere sartuta dago, eta ez edonola egindakoa. Baserriaren atarian oharkabean pasatzen ez den laba daukate, eta bertan egiten dituzte pizzak eta ogia.

Ilusioz beterik ekin zioten lanari, eta landetxea martxan jarzteaz bat, Covid-19aren pandemia iritsi zen. Hala ere, pozik dago Matteo jendearen erantzunarekin: "Ez zaigu gaizki joan, egia esanda. Itxita eduki genuen denbora kenduta, gainerakoan beti izan ditugu bezeroak eta ondo egin dugu lan". Mugikortasuna baimendu zutenean jende asko hasi zen landetxe bila, eta nekazal esparruko turismoak gora egin zuen: "Hemen maskararik gabe egon daitezke, ez dago jende pilaketarik, eta jendeari horrek segurtasuna eskaintzen dio Covid pandemia garai honetan". Orain bezeroak gertukoagoak dira, baina leku askotatik etortzen da jendea Abatetxera: "Atzerriko bezeroak izan ditugu, Espainiakoak eta Euskal Herrikoak asko, eta Elgoibarkoak ere bai". Harrituta hartu izan ditu Matteok elgoibartarren erreserbak, baina aldi berean ulertzen du jendeak herritik irten nahi izate hori: "Asteburu bat mendian eta etetik gertu pasatzeko aukera ona da. Jende askok esaten digu beti urrutira joaten direla oporretan, eta etxean bertan ditugun paraje ederrak ez dituztela ezagutzen".

## ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Mendizale eta naturazalea izateaz gain, Matteo Cantu mendi ingeniaria da, eta energia berriztagarrien gaineko masterra ere egina dauka. Lanbidez ere sektore horretako komertziala izan da enpresa multinazional batean oraintsu arte, eta ondorioz, Abatetxen ere energia berriztagarrien aldeko apustua egin dute. Argindarra eguzki panelen bidez eta energia eolikoaren bitartez lortzen dute. Eguzkia eta haizea behar dituzte energia sortzeko, eta Euskal Herrian eguzkia ez da soberan egoten, baina daukaten siste-



mari esker, beraien etxerako eta landetxeko bezeroentzako nahikoa energia sortzen dute. Bateria batzuk dituzte, eta hor gordetzen da sortutako energia, behar dutenean erabiltzeko. Beraz, beraiak produzitzen dute kontsumituko duten argindarra, eta ez daukate sare elektrikora konexiorik. "Bezeroei esaten diegu behar duten argindarra erabiltzeko, baina kontsumo arduratsua egiteko eskatzen diegu, argindarra alperrik ez erabiltzeko". Ura ere menditik hartzen dute, baserri inguruan dagoen iturri batetik. Ura kanalizatuta dute, eta ur korrantea daukate, baina ez dute herriko ura erabiltzen. Abatetxen, beraz, erabateko deskonexioa posible da, baina bezero gehienek iritsi eta bat galdetzen diote ea WiFi-rik badagoen Abatetxen. Eta egon badago, ez dago zuntz optikorik



eta konexioa ez da oso azkarra, baina Interneterako sarbidea ematen diete bezeroei. Hala ere, Matteok azaldu du eskaintza oso berezi bat egiten dietela bezeroei egunerokotik deskonektatzeko, eta denek gainera begi onez ikusten dutela gaineratu du, baina "beste batzuentzat": "Gure bezeroei aukera ematen diet hona etortzen direnean sakeleko telefonoak eta gailu elektroniko guztiak giltzapetutako kutxa batean sartzeko eta giltza niri emateko. Beraiek aukeratu dezakete zenbat egunerako deskonexioa nahi duten, eta edozein momentutan giltza eskatzeko aukera dute, baina normalean ez du inork eskaintza hori hartzen".

### EGONALDIA ETA ESPERIENTZIAK

Turismorako gune interesgarrian dago Abatetxe, eta batez ere turismo lokala sustatu nahi dute. Horretarako, Elgoibarko beste eragile batzuekin elkarlanean ari dira, Abatetxeko bezeroei egonaldiak eskaintzeaz gain, esperientziak ere eskaintzeko. Lizagasar sagartokiarekin harremanetan jarri dira batetik, eta hura ezagutzeko aukera eskainiko diete bezeroei. Mausitxa baserriako bisitak ere eskaintzeko asmoa dute, gazta nola egiten duten ezagutzeko, eta Inma Mugertza geologo elgoibartarrekin

hemen inguruan irteera gidatuak egitea ere aurreikusi dute. "Katalogo bat prestatzen ari gara Elgoibarko turismoa sustatzeko. Bezero askori gustatzen zaie hona etortzen direnean zer egin dezaketen azaltzea, eta gu horretarako prest gaude". Umeekin ere egiten dituzte ekintzak Abatetxan, animaliei jaten eman, arrautzak batu, baratzean ibili... Etengabeko hobekuntzak egiten ari dira Abatetxan, eta umeentzako jolasgune bat prestatzea ere aurreikusi dute. Urrutira gabe, beraz, beste Elgoibar bat ezagutzeko aukera dago Abatetxan.

## Abatetxe, datutan

- ◆ Gelak: 4. Batek jakuzzia dauka, gainerakoek dutxa.
- ◆ Sukaldea: Bezeroek konpartitzeko.
- ◆ Otorduak: Gosaria eta afaria bertan egiteko aukera.
- ◆ Erreserbak eta informazioa: [www.abatetxe.com](http://www.abatetxe.com) / 644 706 893 / [info@abatetxe.com](mailto:info@abatetxe.com)





## ▶ IBAN ARANTZABAL TOKIKOM-EKO LEHENDAKARIA

Joan zen barikuan egin zuen Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, urteko batzar orokorra, Eibarren. 2020aren balorazioa egin zuten, eta 2021erako eta aurreragorako asmoak eta helburuak ere izan zituzten hizpide. Batzar hartan gauzatu zen presidente erreleboa ere. Izan ere, azken lau urteetan Tokikomeko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabali pasa zion lekukoa.

- GOIENA -

# “Tokikom ez balego, nekez egongo ginatekeen gaur tokiko hedabideok gauden tokian”

♦ **Tokikomeko presidente berria zaitugu. Zer pentsatu zenuen aukera planteatu zizutenean eta zer asmorekin hartu duzu?**

Animoarekin hartu behar da kargua, eta halaxe hartu dut. Momentu polita da; badago zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua. Mundu aldakor honetan, bagabilta zelabait posizionatzen, eta, alde horretatik, animoso eta gogotsu nago. Bestalde, administrazio kontseiluan gutako edozein izan zitekeen presidente, egia esan. Kargua hartzen dut administrazio kontseiluaren eta batzar orokorraren ahobatezotasunarekin, eta hori

garrantzitsua da. Nahi nuke tren berean jarraitzea Tokikomeko bazkide guztiok, eta ahaleginduko gara horretan.

♦ **Kargua egoera nahiko aldrebasean hartu duzu: 2020an COVID-19ak hantaz gora jarri zuen mundua eta 2021 honetan ere gauzak ez dira guztiz egonkortu. Tokikom bera zer puntutan dago une honetan?**

Eragin zuzena izan zuen. Batetik, poza eragin zuen, bazelako informazioa emateko garai bat, kazetaritza egiteko garai bat, eta hori profesionalentzako ere badelako, jartzen gaituelako leku batean non jendeak ikusi, entzun eta irakurri nahi

gaituen. Gure webguneetako bisitak, orokorrean, Tokikomeko guztiak hartuta, %46 igo ziren. Jendea informazio gosez zegoen. Ez bakarrik Txinan zer gertatzen zen jakiteko, baizik eta norbere herrian zer gertatzen den jakiteko ere. Hori eman du Tokikomek: hainbat daturekin, grafikoekin... eta, gainera, egunero-egunero berriitu ditu datuok, izan aste-barru edo izan aste-akabera. Eta horrek lagundu du webguneetako bisitak igotzen. Hori da alde gozoa: egiten duzun horri jasotzaileak erantzuna ematen diolako. Baina badauka gazitik ere: hori egitea kostatu zaigu %30 gehiago, batez beste. Kaze-

taritza gastu handiagoarekin egin dugu. Eta hori pisutsua da. Eskatzen du lan gehiago. Zer ez genuen egiten grabazio bat egiteko! Pandemia horrek, hasieran oso ezezaguna zenak, sortu zuen demaseko denbora galera lan egiteko orduan. Gainera, gure kasuan, bazegoen beste kontu bat: hedabideok ezinbestekotzat izendatzen gintuzten, premia biziko ondatsun. Bagenuen egiteko bat eta badaukagu: informazioa behar bat da, ez eskubidea bakarrik.

◆ **Horrelako egoera batean, Tokikom bezalako talde batek nola lagun diezaike bere barnean hartzen dituen kideei?**

Ezinbestekoa izan da. Tokikom osatzen dugun hedabideetan denetarik dago, eta, denok gauza bera oinarri ezberdinetatik egiten hasiko bagina, askoz gehiago zailduko litzateke bakoitzaren egitekoa. Toki hedabideetako profesionalek egin duten lana ez dakit bikoitza izan den, baina askoz handiagoa izan da behintzat eta malgutasun hori erakutsi dute. *Goienan* eta beste edozein hedabidetan berdin, izan txikiagoa edo handiagoa. Tokikomek ekarri du bateratze bat. Pandemiaren datu-bilketarekin azalduta, esaterako: datuak jaso, azkar webguneratu eta konparatu ditugu; herrietako datuekin, gure ondoko bailarakoekin, Hego Euskal Herrikoekin, ahal zenean Euskal Herrikoekin... eta mapa bat osatu dugu. Gure kasuan, gertuko mapa bat osatzeak du benetan garrantzia. Tokikomek marrazten du Euskal Herria eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketarekin, informazioarekin... hainbat modutara. Tokikom egon ez balitz, nekez egongo ginatkeen gaur gauden tokian.

◆ **Bakoitza bere aldetik joanda...**

Bai, bikoitza kostatuko litzaziguke. Debagoienean, Sorraluzen, Elgoibarren, Beran, Zumaian, Durangon... Oinarria bat izateak asko laguntzen digu, eta hori Tokikomi esker lortzen da. Batuta, askoz eta efikazia eta efizientzia handiagoarekin egiten dugu kazetaritza.

◆ **Tokikomeko kideak aipatu ditugu, eta barikuan batzar orokorra egin zenetik**



**bi kide gehiago ditu: 'Tolosaldeko Ataria' eta Bizkaiko Arratia bailarako 'Begitu' hamabostekaria. Berri ona, ezta?**

Oso ona, besteak beste, erakusten duelako jendeak nahi duela egon Tokikomen. Zuzeneko harreman horrek berezko garrantzia duelako eta ekarri handia egiten diolako hedabideari. *Tolosaldeko Ataria* bera Tokikomek garatutako plataformarekin ari zen lanean aspalditik, eta orain eman du saltoa bazkide izatera. Plataformaz gain, papereko edizio sistema baterako aukera dagoelako, telebistak egiteko modua dagoelako, kudeaketa

*“Denok gauza bera oinarri ezberdinetatik egiten hasiko bagina, askoz gehiago zailduko litzateke bakoitzaren egitekoa”*

aurreratuan sartu daitekeelako gainontzekoekin batera eta gainontzekoengandik ikasi, berak erakutsi... Berezkoa du Tokikomek ekarri hori, uste dudalako eman ere asko egiten duela. Etorriko dira hedabide gehiago ere, Tokikom beharrezkoa delako tokiko hedabideentzako.

◆ **Zer azpimarratuko zenuke Jone Guenetxeak lau urte hauetan egin duen lanari buruz?**

Jakin du Bizkaian ere eragiten, Tokikomen bitartez. Eta topatu ditu aliantzak erakundeetan. Lehen baino batuago daude, lehen baino hobeto egiten da lan. Ez bakarrik Bizkaian. Jonek oso ondo ordezkatu gaitu gainontzeko erakundeetan: Jaurlaritzan, Nafarroako Gobernuan, eta abarretan. Datuek argi erakusten dute aurrera egin dela. Orain, kazetaritzara bildu nahi ditu indarrak, eta seguru emango dituela hor ere fruituak. Horratx *Anbotok* atera duen elkarrizketa Sarrionandiarekin, edo *Jantzari* dokumentala.



◆ **Zeintzuk dira Tokikomek, bai barrura begira eta baita kanpora begira ere, di-tuen erronka edo eginbehar nagusiak?**

Uste dut barrura begirako eginbeharreko lan handi bat eginda dagoela, adostu direlako hainbat gauza, lehen esan dudan moduan, baina oraindik ere geratuko zaigu, eta denoi dagokigu, gainera, kohesio hori. Hedabide txikienetik handienara. Nik uste dut hor badagoela lanerako esparru handi bat. Elkarri gehiago eman diezaiokegu eta elkarrengandik gehiago jaso dezakegu. Uste dut hor asmatzen badugu, are eta hobeto joango dela urte hau, eta hurrengoak ere.

◆ **Kanpora begira?**

Markan ere eragin beharko dugu oraindik. Sinesgarritasunean pauso handiak ematen ari gara. Kanpora begira batuta agertzea ere uste dut tokatuko zaigula talde moduan, eta hainbat informazio ematea talde horretatik abiatuta ere. Adibide gertuko bat daukagu Sarrionandiarenarekin. *Anbotok* lortu du eskusiba hori. Ondo egindako lan bati esker eta lortutako konfiantzari esker elkarrizketatuare-

*“Markan ere eragin beharko dugu oraindik. Sinesgarritasunean pauso handiak ematen ari gara”*

kin. Elkarrizketa hori berori tokiko guztietan batera zabaltzea, seguruenik, irabazteko dagoen kontuetako bat da. Bater a zabaltzeko modukoak izan daitezke Euskal Herriko edozein artistaren edo kanpotik datorren dena delako elkarrizketak. Pentsatzen dut horrelako pausoak ere ematen hasiko garela, tokiko aldizkaria, telebista edo webgunea ez direlako bakarrik toki horretakoa. Gertukoa guretzako gaur egun da *Goazen!*-eko aktore bat, edo EITBko informatiboetako aurkezlea edo kirolari ezagun bat. Ez da tokikoa, baina bai gertukoa, eta hori da interesatzen zai-guna.

◆ **Etxebarri zure blogean, etorkizune-**

rako hainbat gako ematen dituzu hedabideen inguruan. Aipatzen dituzu, besteak beste, harpidetza digitala, inteligentzia artifizialaren erabilera, sare sozial handien aurrean hedabideek izan behar duten eginkizuna... Horiek ikusten dituzu gako nabarmen moduan?

Bai, eta ez da nik bakarrik ikusten dudala. Mundu mailako 300 bat profesionali egindako galdeketa baten ostean ateratako ondorioak dira. *New York Times*, *Telegraph*, *Financial Times*, *The Guardian*... halako hedabide handietan, berez guretzako haiengana heltzeko zail izango lirartekeen horietan agertzen diren hausnarketak dira. BBCk egindako inkesta baten dago oinarrituta. Han aipatzen da inteligentzia artifiziala. Berez, tokiko hedabide batendako urrun geratu daitezkeen hori gerturatzen digu Tokikomek. Inteligentzia artifizialaz, ez bakarrik hitz egiteko; izan ere, dagoeneko bagoaz hiru urte lanean inteligentzia artifiziala oinarri duen proiektuan, eta horrek emango ditu fruituak 2021ean ez bada, 2022an. Elka-

**JONE GUENETXEA**, Tokikom-eko lehendakari ohia

*“Euskarazko tokiko hedabideen indargune garrantzitsuenetakoa sinesgarritasuna da”*

“Azken lau urteotako balorazioa egiterakoan, esango nuke oso aberasgarria izan dela Tokikomen egindako lana, baina, batez ere, talde-lana izan delako. Norbait egon behar da presidente kargu horretan, eta azkenengo lau urteetan niri tokatu zait.

Hemendik aurrera, Iban Arantzabal egongo da. Dena den, horren atzean talde-lana dago, eta sektoreari buruz ikasteko eta gauza askori buruz ikasteko balio izan dit.

Lau urte hauetan, tartean, pandemia bat sartu zaigu, eta horrek asko zaildu du hedabideon lana. Horrek ere markatu du lau urteotako ibilbidea.

Nik esango nuke hemendik aurrera beste ibilbide bat mar-txan jarriko dela, baina hemen ere talde-lana izango dela abiapuntua. Eta oraingoan ere, hainbat puntu izango ditugula langai. Batez ere, indarguneak mantentzea.

Euskarazko tokiko hedabideen indargune garrantzitsuenetakoa sinesgarritasuna da, gure komunitatearekin dugun gertutasuna, zero kilometro horrek ematen digun gertutasuna.

Horrez gain, orain arte egiten asmatu dugun moduan, sasoi berrietara egokitzea komunikazioaren mundua geroz eta azkarrago aldatzen ari da eta geroz eta azkarrago egokitu behar dugu paradigma berrietara, eta, horretarako, tresnak behar dira, elkarlana behar da. Horretarako dago hor Tokikom, eta Iban Arantzabal. Beraz, zorte on, Iban, hemendik aurrerako ibilbide horretan”.



rriketa hau beraz transkribatu ahal izango da testua makina batek eginda, eta ez kazetari baten bitartez. Horrek ere lagunduko digu kazetari hori are eta garrantzitsuagoak diren gauzetan inplikatzeko. Ze makinak egin lezakeena egiten egotea... Kazetariak behar du are kazetariago izan eta kazetaritzari are eta balio handiagoa eman. Nik uste dut horiek erronketako batzuk direla. Horrekin lotuta, negozio moduan begiratu beharko dugula, nola publizitatea jaisten ari den eta nola harpidetza digitalei garrantzia eman beharko diegun... Hainbat gauza dira inkesta horietan agertzen direnak eta guretzako iparra direnak. Egon behar dugu antena horrekin ere, munduan zer mugitzen den ikusteko eta moldatuta gurea ekarri.

#### ◆ Horrek lagunduko du kazetaritza egiten?

Ez daukat zalantzarik, denbora aterako dugulako hortik. Gauzak ondo antolatu eta hobetuta ere, beti geratuko da kazetaria eta kazetariaren egiteko garrantzitsu hori. Eta kazetariaren egitekoa garrantzitsua eta sinesgarria izango da istorio horiek ondo kontatzen baditugu, onak badira eta erakarriak badira. Sinesgarri izateak ere garrantzi handia dauka. BBCk egin-

dako galdeketa horretan, %83k aipatzen zuten inpartzialtasuna izango dela garrantzitsua. Zertarako? Sinesgarritasuna lortzeko. Hau da kontzeptu bat oraindik garatu behar duguna gure artean, inpartziala izanda izango delako hobea istorioa edota informazioa. Irakurleari emango diogu hitza berak erabakitzeke zer den berarentzako egia eta zer ez. Egiaren bila joatea badagokigu, badagokigu objektiboa den horren bila joatea, baina, askotan, hori baino garrantzitsuagoa da testuinguru guztia marraztea eta irakurleak tontoztat ez hartzea. Ez dut sinisten jendeak zer pentsatu behar duen esaten duten hedabideetan.

◆ **Tokikom, nolabait esateko, gizartearen ekosistema baten parte da, hainbat alde dituena, eta erakunde publikoak daude hor. Herritarrak ere badaude hor, eta gainerako hedabideak ere badaude hor; esaterako, Tokikom bera parte den euskarazko hedabide ez publikoen elkartea, Hekimen. Ze harreman dago hiru horien artean?**

Herri Ekimeneko Hekimen elkartearen parte da Tokikom. Bazkide bat gehiago da. Sortzaileetako. Bigarren aipatu duzu: administrazio publikoa. Goienan ohituak gaude erakunde pu-

blikoekin batera jarduten. Sorreratik bertatik jabeakide dituelako Debagoieneko Udalak. Baina ez da ohikoena izaten hedabide batean hala izatea. Jabeakide ez izanda ere, uste dut harremanak gozatu egin behar direla. Bide horretan, administrazioak ere eman ditu pausoak. Hekimenean eman ditu pausoak eta guk, gure aldetik ere, gutako bakoitzak eman ditu pausoak. Igarriko da.

◆ **Bukatzeke, azken lerroa: herritarrak, Tokikomeko hedabideen kontsumitzaileak direnak.**

Eta inportanteena. Gu zero kilometroko hedabideak gara, eta ez herritarrentzako bakarrik, herritarrekin egin behar ditugu hedabideak. Hor badaukagu zer ikasi. Komunitatea askotan aipatzen da, baina ez dago oso zehatz definituta, ezta, komunitatearen parte izanik, zer egin behar dugun ere. Oraindik definitzeko eta ikasteko daukagu. Honetan estropezu ere egin beharko dugu. Baina planteatu behar dugu komunitategintza bateratua izan dadin, gure herritako komertzioekin, gure herritarrekin, gure hedabideekin... Ze tokiko hedabide bat, zer da komertzio txiki bat baino. Gu bat gehiago gara. Sinisten dut, gainera, batera egin beharko ditugula gauzak.

## UDALDIAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA ESKAINIKO DU ELGOIBARKO IZARRAK

Aurtengo udaldian praktikak egiteko eskaera epea zabalik dago.  
Praktikak egin ahal izateko, hurrengo baldintzak bete behar dira:

### ESKATZEN DA:

- Begirale tituluaren atal teorikoa eginda izatea edota udaleku irekietan lan boluntarioa egiteko gogoia izatea.
- 18 urtez gorakoa izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

### BALORATUKO DA:

- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Hezkuntza Bereziko edo Gizarte Hezitzaile ikasketak eginda izatea edota jardun horretan esperientzia izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:  
MAIATZAK 10, ASTELEHENA

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webguneko lan-poltsa atalean utzi ahal izango dituzue zuen curriculumak.

Informazio gehiagorako: 943 741 746  
[atxutxianakura@elgoibarkoizarra.eus](mailto:atxutxianakura@elgoibarkoizarra.eus)

CURRICULUMA:





1966

Aste honetako erretratu zaharra Txomin Mujikak lagatakoa da. 1966an Kalamuan aterata dago, scout taldearen irteera batean. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak. **Atzean:** Jon Arrieta, Ricardo Mujika "Fonta", Enrike Iriondo (†), Txomin Mujika. **Aurrean:** Jose Luis Arrieta, Luis Mari Jauregi, Jose Ignacio Jauregi, Jose Mari Barrenetxea (†) eta Jose Ramon Ezenarro.



V. URTEURRENA

*Manuel Rey Quiroga*

1937-2016

*Bost urte dira utzi gintuzunetik,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Etxekoak



**Beriak beranak izan, eta bestianak erdibana euki:**  
 Berea partekatu ez, baina besteena partekatu nahi izaten dutenei esaten zaie.

## Hainbat ekintza egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron joan zen barikuan, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

Joan zen barikuan, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen eta hori ospatzeko hainbat ekintza egin zituzten, Elgoibarren eta Mendaron:

### Liburu sinatzea, Pitxintxun

Uxue Alberdi eta Jasone Osoro idazle elgoibartarrak liburuak sinatzen jardun ziren joan zen barikuan, Pitxintxu liburu dendan. Uxue Alberdik *Dendaostekoak* kronika literarioa argitaratu zuen iaz, Pitxintxu bera duena ardatz, eta *Jenisjoplin* eleberriaren gaztelarazko edizioa ere argitaratu zuen. Jasone Osorok *Festa* gazteentzako liburua argitaratu berri du, eta *Go!azen* bildumako laugarrena ere oraintsu kaleratu du. Herritar ugari gerturatu ziren Pitxintxura.



### Liburu truke azoka eta ipuin-kontalaria, Mendaron

Arno Guraso Elkarteak antolatuta, ipuin-kontalari saioa eta liburu truke azoka egin zituzten Mendaron. Ipuinen munduan barneratzeko aukera izan zuten neska-mutilek, Debako ipuin kontalarien eskutik. Mari Seara eta Oihana Irusta jardun ziren ipuin-kontalari lanetan eta dozenaka ume eta guraso batu ziren saiora. Ondoren, Herriko Enparantzan liburuak trukatu ahal izan zituzten herriko haurrek.

### Herri Eskolakoak, Maalako parkean

Irakurzaletasuna kalera atera zuten barikuan Herri Eskolakoak, eta liburuak ikastetxetik Maalako parkera eraman zituzten. Ikastetxeko hamazazpi geletako ikasle pasatu ziren Maalako parkeko eszenatokitik, txandan txandan, eta aurrez aukeratutako liburu bateko esaldi bat edo pasarte bat irakurri zuten, banan-banan, jendaurrean.



## Ludotekako Aste Nagusia iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

Elgoibarko ludotekak Aste Nagusia iragartzeko kartel lehiaketa jarri du abian HH5 eta LH6ko umeentzat. *Ludotekako XI. Aste Nagusia* esaldia agertu beharko da ezinbestean, baina kartela estilo librean egin daiteke. Haur bakoitzak kartel bakarra aurkeztu dezake. Parte hartzeko azken eguna maiatzaren 5a izango da. Interesatuak [ludotekaelgoibar@gmail.com](mailto:ludotekaelgoibar@gmail.com) helbidera bidali ditzakete lanak, edota Ludotekan bertan entregatu, beranduenez, gaur arratsalderako. Egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta ikas-maila zehaztu beharko dira kartelean. Sariduna nor den maiatzaren 7an jakinaraziko dute Udalaren webgunean, ludotekako Instagramean eta Ludotekan bertan. Kartela baloratu eta sariduna aukeratzeko orduan, kontuan hartuko dira kartelaren sormena eta originaltasuna. Irabazleak Pitxintxun erabiltzeko 100euroko bonua jasoko du, eta horrez gain, bere kartela erabiliko da Aste Nagusiko programa iragartzeko.



## Testura taldeak kontzertua emango du domekan, Mendaron



**K**oronabirusagatik iaz ezin izan zuten Gararock jaialdia egin Mendaron, eta horren ordez antolatatu dute *Begiekin entzutekoak* musika zikloa. Muga taldeak eman zion hasiera zikloari, eta domeka honetan izango da bigarren kontzertua. Testura taldeak eskainiko du, 19:00etatik aurrera, San Agustín kulturgunean. Ander Mujika musikari elgoibartarraren azken proiektua da Testura. Napoka Iria desegin ostean, kaxoian gordeta zituen hainbat pieza berreskuratu eta oso berea den proiektua jarri zuen martxan, Felix Buff, Johannes Buff eta Maialen Belaustegirekin batera. Testura desberdinekin esperimintzen dute, eta soinu eta irudi geruzez baliatuko dira zuzenekoan.

## Lan poltsa osatzeko deialdia Debaben

2021eko apirilaren 20an Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitateko Gestora Batzordeak hartu zuen erabakiaren bitartez, lan-poltsa bat lehia-keta bidez osatzeko deialdia egin du, euskara irakasle beharrak betetzeko. Oinarriak 2021eko apirilaren 29ko GAO-n argitaratu dira; hain zuzen ere, 78. zenbakian, eta agiriak aurkezteko azken eguna 2021eko maiatzaren 19a izango da.

## Maiatzaren 7an jarriko dituzte salgai Eñaut Elorrietaren kontzerturako sarrerak

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Eñaut Elorrietak kontzertua emango du maiatzaren 21ean Herriko Antzokian. Sarrerak Kutxabank bidez jarriko dituzte salgai maiatzaren 7an, 20:00etan, eta hurrengo egunetik aurrera erosi ahaliko dira ohiko egun eta orduetan Herriko Antzokiko lehiatilan, aurrez agortzen ez badira. Sarrerak 10 euroan salduko dituzte (Gazte Txartelarekin, 3 euro). Kontzertua 17:30ean izango da.



## Elgoibarko Musika Eskolan izena emateko epea maiatzaren 3tik aurrera

Musika Eskolak maiatzaren 3an zabalduko du datorren ikasturterako izena emateko epea. Aurretik Musika Eskolan izena emanda dauden umeei automatikoki berrituko zaie matrikula. Dena dela, norbaitek espezialitateak aldatu nahi baditu edo baja eman nahi badu, irakasleari edo idazkariari jakinarazi beharko dio. Instrumentua aukeratzea tokatzen zaien umeen kasuan, Musika Eskolako ardura-dunak jarriko dira gurasoekin harremanetan. Ikasle berrien kasuan, maiatzaren 31ra arte izango dute izena emateko epea. Musika Eskolako idazkaritzan eman beharko dute izena, astelehenetik barikura, 15:00etatik 21:00etara. Informazio gehiagorako [elgoibarmusika@elgoibarmusika.eus](mailto:elgoibarmusika@elgoibarmusika.eus) helbidera idatzi edo 943742145/ 628929055 telefonotara deitu daiteke.

## Dorleta Kortazar ipuin kontalaria gaur, Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren saioa izango da gaur, udaletxeko Udalbatza aretoan. 4-8 urte bitarteko umeentzako saioa izango da, eta gehienez 23 umerentzako lekua egongo da. Sarrera doakoa da, baina gonbidapenak liburutegian jaso beharko dira aurrez. 18:30ean hasiko da saioa.

## Udaldian izena emateko epea bukatzeaz da

Domekan itxiko dute Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea. Interesatuek [www.elgoibarkoizarrara.eus](http://www.elgoibarkoizarrara.eus) atarian, Elgoibarko Izarraren bulegoen edo Ludotekan eman dezakete izena. Maiatzaren 7an jakinaraziko dute arduradunek zeintzuk izan diren onartuak.

## Haitzart Iraolagoitia pilotari mendaroarrak kadeteen bigarren mailako lau t'erdiko txapelketa jokatu du bihar, Zumaian

**H**aitzart Iraolagoitia pilotari mendaroarra Ibon Ibarra eibartarraren kontra lehiatu zen barikuan, Mendaron, kadeteen bigarren mailako lau t'erdiko txapelketako finalerdietan, eta 22 eta 18ko emaitzarekin gailendu zen mendaroarra. Hala, Mendebaldeko Txapelketarako finalerako sailkatu zen. Partida estua izan zen. Markagailuan atzetik jarri zen Iraolagoitia hasi eta berehala, baina ez zuen etsi, eta 18 tantotan utzi zuen Ibarra, iaz binanakoan bikotekide izan zuena. Ondo ezagutzen dute bi pilotariek elkar, elkarrekin aritukoak direlako, Ibon Ibarra aurrelari lanetan eta Haitzart bera atzelari lanetan. Hain justu ere, bikote izango dira datorren astean hastekoa den Udaberriko Txapelketan. Mendebaldeko Txapelketako finala bihar jokatuko dute, Zumaia Aitzuri frontoian, 11:00etan hasita, eta Zumaia Aritz Olaizola izango du aurkari mendaroarrak. Kadeteen bigarren mailan 55 mutil lehiatu dira guztira.



## Beti Gazte edo Hernani izango da Haundiren aurkaria igotzeko kanporaketan

Hirugarren mailarako igoera faserako sailkatuta dago Haundi, baina aurkaria zein izango den argitzea falta da. Berez argituta behar luke, amaitu baita Gipuzkoako ohorezko mailako liga txapelketako lehen fasea, baina Mutrikuk eta Bergarak jokatu beharreko azken jardunaldiko partida atzeratu egin behar izan zuten, joan den asteburuan, Mutrikuko taldean egon diren bi koronabirus kasugatik. Asteburu honetan jokatuko dute Mutrikuk eta Bergarak elkarren arteko lehia. Bergarako taldea igoera kanporaketa jokatzeke sailkatuta dago, eta Mutrikuk berdinketa batekin lortuko luke sailkapena. Era berean, partida horretako emaitzak eragina izango du Haundiren azken sailkapenean. Mutrikuk partida hori irabazten badu, multzoko laugarren postuan amaituko du Haundik eta hirugarrenean bestela. Laugarren geldituz gero, beste multzoko lehen sailkatuaren aurka jokatuko dute elgoibartarrek final-laurdenetako kanporaketa. Hau da, Lesakako Beti Gazteren aurka. Hirugarren postuan sailkatuz gero, Hernani izango da Haundiren aurkaria.



## Julen Agirrek kudeatuko ditu Mintxetako bi tabernak

Julen Agirrek kudeatuko ditu aurrerantzean Mintxetako bi tabernak, zerbitzua ustiatzeko lizitazioa eskuratu baitu. Sarrerakoa bihar, maiatzak 1, zabalduko dute berriro, hainbat hilabetetan -2020ko azarotik hona- itxita egon eta gero. Igerilekuen ondoan dagoen taberna ere kudeatuko du Agirrek. Hori ekainaren 5ean zabalduko dute, igerilekuak zabalitzen dituztenean.





## Alcortak porrot mingarria jaso du Errioxan, baina aurkarien miresmena eskuratuta


**M**ailari eusteko partida erabakigarria jokatu zuten Alcorta F.G. eta Asfaltos Redondo Solozabal eskubaloitako talde errioxarrak, Navarreten (Errioxa, Espainia), aurreko zapatuan. Etxeko taldeak hasieratik hartu zuen aldea markagailuan eta amaierara arte eutsi zion aldeari. 26-22 izan zen azken emaitza. Hala, orain, Navarreteko taldeak sei puntuko aldea ateratzen die sailkapenean azken postuan den Alcortari eta azkenurrekoan dagoen Huescako Avefor taldeari, abantaila ia gaindiezina zuloan dauden taldeentzat, oraindik aukerak dituzten arren. Alcortari bost partida gelditzen zaizkio liga bukatzeko eta 5 puntu dituzte sailkapenean. Postu bat gorago, 15. postuan, da Avefor Huesca, horiek ere 5 punturekin. Asfaltos Redondo Solozabal Navarrete taldeak 11 puntu ditu orain, 14. postuan, eta 20 puntu ditu maila galtzeko arriskutik kanpo den Dominicos Zaragoza taldeak, 13. postuan. Azkenengo bi sailkatuek galduko dute maila.



Errioxarrek eta gipuzkoarrek partida erabakigarria jokatu zuten arren, hitz politikak eskaini dizkiete Navarretekoek Sanlokoei. "Animoak eman nahi dizkizuegu, aurkari benetan duina izan zaretelako eta kiroltasun osoz jokaturako partida izan delako. Oraindik ez da txapelketa bukatu", esan dute. Horrez gainera, Alcortako atezain Iñigo Mugertzak eginiko geldiketa hirukoitza goraiatu dute Errioxarrek: "Lehen Nazional mailan sekula ikusi dugun geldiketa onena", euren ustez. Izan ere, jo-

kaldi berean eta bost segunduko tartean, hiru geldiketa egin zituen Iñigo Mugertzak, aurkariak abantaila guztia zutenean gainera, sei metrotatik eta bakar-bakarrik egin baitzituzten hiru jaurtiketak. Harmailetan zeuden zaleen eta aurkarien txaloak eta zorionak jaso zituen Mugertzak. Espainiako Eskubaloitako Federazioak ere bertxiotu du geldiketen bideoa bere Twitterreko kontuan, eta izan duen zabalpenari esker, ikustaldi asko izan ditu.

## Elgoibarko Alcorta enpresak babestuta jokatu du Eibarrek Realaren aurkako derbia



Gipuzkoako derbia jokatu zuten astelehenean Eibarrek eta Realak, Ipuruan. Eibar taldeko jokalariek Alcorta Forging Group enpresa elgoibartarraren logotipoa eraman zuten elastikoaren aurrealdean. Azken urteetan S.D. Eibar kirol taldearekin elkarlanean aritu da Alcorta Forging Group, eta biek akordioa adostu zuten Eibarrek eta Realak ligako 32. jardunaldian jokatu zuten partidarako. Akordio horren arabera, Alcorta izan zen Eibarren babesle nagusia Realak 0-1 irabazi zuen derbian, eta enpresaren logotipoa elastikoan eraman zuten jokalariek. Avia babeslearekin zuen harreman komertzialarekin amaitu ostean, era honetako ekimen gehiago egin ditu Eibarrek denboraldi honetan, eta eurekin elkarlanean aritu diren inguruko enpresa gehiagok ere izan dute lehen mailako partidetan Eibarko babesle izateko aukera. Alyco Tools, S.A. enpresak, esaterako, Eibar babestu zuen talde armaginak Real Madrilen aurka Alfredo Di Stefano futbol zelaian jokatu zuen ligako 29. jardunaldiko partidari. Era berean, Eibarrek Bartzelonaren aurka jokatuko duen ligako azken partidari ere Alyco izango da talde eibartarraren babeslea. Alyco enpresa Elgoibarren sortu zen duela 100 urte baino gehiago, gaur egun egoitza Itziarren duen arren.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetan aritzeko prest nago.

☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Etxeko langile moduan ere lan egiteko prest.

☎ 643 584 198

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 602 407 338

Adinekoak zainduko nituzke asteburuetan.

☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko garbiketara lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. ☎ 612 565 490

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanetan ere aritzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 121 148

Lan bila nabil. Esperientzia daukat zerbitzari lanetan, umeak zaintzen eta portalak edo etxeak garbitzen. ☎ 641 511 910

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. 5 urteko esperientzia daukat.

☎ 632 576 642

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz eta prestutasun osoa daukat.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritu izan naiz. ☎ 632 915 336

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, arratsaldez edo gauzez.

☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 693 293 539

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta zainketa lanetarako titulazioa daukat.

☎ 626 490 986

Txakurrak paseatzera ateratzeko prest nago. Goizez.

☎ 618 337 766

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketara lanak edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest.

☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 632 157 852

**Eskaintzak**

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.

☎ 630 915 031

Elgoibarko ileapaindegi baterako esperientziadun ile-apaintzailea behar da.

☎ 634 261 485

**ETXEBIZITZA.....**

Etxea salgai Gabriel Kruzelaegi kaleko 8an, lehen solairuan. 70 m<sup>2</sup>. Bi logela, egongela handia, komuna, eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. Babes Ofizialeko etxea.

☎ 675 709 569

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Kontak</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta dirulaguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeek aurreratu genuen. Orain, dirulaguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.</b></p> <p>Lehenengo eta behin, azalpen bat. Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan dirulaguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jabeekideen batzarraren onespena beharko da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du bere kabuz dirua itzultzeko eskatzeko eskubiderik. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jabeekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbitzetan inbertitzea. Beraz, une horretan etxejabea denak ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko betebeharra dauka, baina onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den unean bertan egiten ditu bere etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.</p> <p><b>AHOLKUA: Izatekotan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina komunitatea ez da ezeren erantzule izango kasu horretan. Komunitateak etxejabe berriari eman beharko diolako dirua.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	---





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira  
BARRENEko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **bikote** 10 eta 7 urte egin dituzuelako. Izugarri maite zaituztegu!

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**SUPERFAMILIA  
PLANA**

**%50** deskontua

**VARILUX**  
JANAKARUEN

\* Kontsumu beldintzak dendan.

**Uzuri** ELGOIBAR - DEDA  
optika audio

San Frantzisko Kalea 21, Elgoibar  
943 74 03 59

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**LAGUNAK** ZERBITZU BERRIA!  
colchoneria textil hogar

**Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara  
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:**

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,  
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

b

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 743 704  
688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**3TI978B BALAY  
GARBIGAILU  
INTEGRAGARRIA**

639 €

A T G C

- 10 urteko bermea duen aparteko motor isila.
- Aqua Control Plus: uraren sarreraren doikuntza kargaren arabera, emailtzarik onenak uraren gutxieneko kontsumoarekin.
- LED display-a, gelditzen den denbora, programaren egoera eta 24 led display-a duen irakurgailu pantaila.
- Programa superazkarrak 15/30 min.
- Etenaldia + karga funtzioa.
- 3G sentsoarea.
- Baruko LED argiztapena.
- 7kg karga.
- 1.200 b/min.
- 8KG Kargako garbigailua 699 €

Zure sukaldean erabat integratuta,  
garbigailu hau ez da ikusten,  
baina haren emailtza handiak bai.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 30 BARIKUA

**18:30** Dorleta Kortazar ipuin kontalariren saioa Mendaroko Udalbatza aretoan 4-8 urte bitarteko umeentzat. Mendaroko Udalak antolatuta.

**19:00** Zine foruma: 'La chica del tren'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

## 2 DOMEKA

**11:30** Gurutze Santuaren Oroimeneko meza. San Bartolome parrokian.

## 6 EGUENA

**18:30** Solasaldia: 'Patio inklusibo bate-rantz'. Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 7 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: 'Dramatitragoak'. Maiatzaren 26ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Taupada antzerki taldeak antolatuta. Manu Sanchezen argazkiak, Luxi Arregiren bideoa eta Sara Iriondo Otañoren eta Dani Zelaiaren kartelak.

### Zinea (Herriko Antzokian)




#### 'Otra ronda (Druk)

1 zapatua: 19:00  
2 domeka: 19:00  
3 astelehena: 19:00



#### 'Tom eta Jerry'

2 domeka: 16:30



#### Laburbira: Euskarazko film laburrak

(Ongarri zinekluba)  
5 eguaztena: 19:00

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

30 BARIKUA	1 ZAPATUA	2 DOMEKA	3 ASTELEHENA	4 MARTITZENA	5 EGUAZTENA	6 EGUENA	7 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauz: 22:00-09:00**  
Arantzazu Izpizua, Ibarakurutz, 7 (Eibar)  
943 201 912





## Luisa Soto Brocal

2021eko apirilaren 22an hil zen, 86 urte zituela.

**Ezin ikusi,  
baina bai senti,  
joan zinen arren,  
gure bihotzean beti zaude bizirik.**



IV. URTEURRENA

## Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

**Betirako gure bihotzetan.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

## Antonio Leon Navarro

2020ko apirilaren 14an hil zen, 53 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 2an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Etxeko argi zinen  
zutabe ere bai  
beti laguntzeko prest  
hurbil eta alai,  
baina gaitzak menpean  
hartu zintuen, ai!  
zuk emandako indarrez,  
egon zaitez lasai  
"aurrera egiteko  
izango gara gai".**

Etxekoak



II. URTEURRENA


## Gloria Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 2an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Nahiz eta orain dela  
bi urte laga,  
beti gure bihotzean  
egongo zara.**

Etxekoak



# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



## ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168


## ITURGINTZA



**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**  
Pedro Migel Urzuzano, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[taller@pagoagasa.com](mailto:taller@pagoagasa.com)  
ELGOIBAR

## ELEKTRIZITATEA



**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Andres: 630 957 345  
677 512 462  
Pedro Migel Urzuzano, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.fuz@hotmail.com](mailto:ego.fuz@hotmail.com)



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226

650 026 631

636 886 322

943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## IGELTSERITZA



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651



Pedro Muguruza Etorbidea, 1  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523

[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.A.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

- Igeltseritza
- Pintura

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak